

MOSKU

Sekadoratik atera eta erditik tolestu ondoren, tiraderan sartu du bularretako gorria. Kopa biak aldenik alden zeharkatzen dituen parpailari so geratu da, pentsakor. Noiz utzi zion erakargarri izateari? Ez du hausnarketa horretan murgiltzerik nahi, baina ezin du ekidin. Sasoi batean, zigarroa karmin gorriz tindatutako ezpainetan pausatuta, elegante eskegiko zituen bere 32 tailako Levi's-ak zein estu antzean jantzi ohi zituen kamiseta eskotedunak, denen bistara, behin edo behin zupada bat eman eta estilismo handiarekin keari gorantz putz eginez. Eta lentzeriaren txanda iritsi orduko, harentzat espresuki libre utzitako soka eskegiko zituen, kolore anitzeko collage moduko bat margotuz. Kolore desberdinetako pintzekin jokatzeko zuten, bere obraren detaile txikiena ere zainduta, publikoaren kritikaren esperoan balego bezala. Azkeneko kuleroak zintzilikatu bezain pronto emendatzen zuten zigarroa, atsegin zuten leihoa itxi aurretik leungarriaren usai freskoa aditzea. Kontraste polita egiten zuten kuleroek izaren artetik ateratzean edukitzen zuten sexu aromarekin. Aspaldi da usain haren falta igartzen duela... Dagoeneko ez ditu arropak kalera begira eskegitzen, gaztetan egin ohi zuten bezala. Ezta patiora ematen duen leihoan ere. Urteak dira sekadora erosi eta bere barruko arropa zein 46 tailako bakeroak bertan sikatzeko hasi zenetik. Inori bere intimitatearen berri emateko premiarik sentitu gabe. Alderantziz. Ezkutatzeko beharrak bultzatuta. Lotsak, akaso.

Gorde berri duen titi-zorroa atera du osteraren ere. Berea baino pare bat taila handiagoa den "Fashion fever"-en kamiseta kendu du, olio marka bat edo

besterekin atondua. Etxean ez du bularretakorik erabiltzen, ez du sekula erabili. Erosotasun kontua, ez besterik. Ispiluaren aurrean jarri da albora begira, bere siluetari beha. Goitik behera hastea erabaki du. Ile kizkurra mototsean bilduta, dotore dauka oraindik. Orain bi egun izan zen ile-apaindegian eta aspaldiko partez granatearen gamako kolore batekin tindatu zuen adats luzea. Gazteago sentiarazten zuen. *Ginger hair*. Ilegorria. Arriskua, misterioa, abentura, pasioa... Begi orlegiei begiratu die gero. Itzalita daude. Off. Ez dute lehengo distira berarekin hitz egiten. Ez darie antzinako ilusio bera. Sudur txikia eta polita izateagatik eskerrak eman dizkio Jainkoari berriz ere. Tira, Jainkoari ez, aita eta amari, biak ala biak sudur-txapalak izateagatik. Ezpainak ihartuta daude, aspaldi utzi zioten gaztetan bezain mamitsu izateari, eta aurpegi guztian zehar zabaldu diren zimurrek ere utzi dute beren arrastoa haiengan. Ez darie gaztetan zerien freskotasunik. Horzka egiteko tentaziorik. Eta aspaldi utzi zion gaztetan bere pertsonalitatearen adierazle zen karmin gorriarekin pintatzeari. Akabo maskarak. Lepoan behera jarraitu du, perlazko lepokoari kasu handirik egiteke, bularren pareraino iritsi den arte. Lotsa sentitu du. Lehen harrotasunez erakusten zituen titien lekuan, bi haragi zati handi eta erori aurkitu ditu. Eta emakume baten bularrak beharrean, behi baten errapeak iruditu zaizkio. Esnea baino zuriagoak, gardenak ia, azpiko zain moreen erakusleiho. Eskuineko eskuarekin laztandu du titiburua, ea bistaratzen zaion. Baina alferrik. Ingurune hartako azalak ez du lehengo sentsibilitatearen laurdenik. Ez da titibururik azaldu, eta negargura sentitu aurretik tripara jaitsi du begirada. Estugune bat ikus daitekeen arren, laster zabaltzen da berriz sabel ingurua, ia bularren pareraino iritsi arte. Mamia. Ezpainetan falta duena, soberan dauka

beheraxeago. Poliki-poliki ferekatu du. Uki leuna du, bigun-biguna. Hortxe gelditu da. ez du behera jarraitzeko betarik izan, adorea agian. Bularretako gorria jantzi du. Orain hobeto sentitzen da, seguruago, baina ez dauka berriz ispilura begiratzeko gogorik. Ez du onartu nahi titizorro polit eta sexiena ere ez dela gai bere gorputzaren deformazioa disimulatzeko. Adinaren zigorra. Fashion fever-en kamiseta jantzi du atzera, eta lentzeriaren tiradera itxi du. Sukaldera doa irratiko albisteak entzutera.

Botoi gorriari klik egin eta berriz konturatu da ez dela lehengo pertsoa bera. Karmin gorriz tindaturiko ezpaindun emakumearen bizi poza Moskuko kale estuen bakardadeak hoztu du. Garai batean diskotekako musika entzun ohi zuen irratan, ez zuen beste katerik sintonizatzen. Bost axola zion munduan gertatzen zenak, bost axola politikak, gerrak eta lurrikarak. Festa doinua edonon. Baina orain, adinak bultza egin dio gurpilari, supituki, ustekabeen. Berak ez baitzuen espero egundo zahartzerik, edertasun hura degradatzerik. Nola, ba? 70eko hamarkadan magazin ororen azalean agertzen zen neska gazte hark ezin zuen zahartu. Errusiako Venus berria izango zela agindu zioten. Europako Afrodita. Aurreikuspen orok huts egin zuen, ordea. Denboraren joanarekin joan baitziren albiste onak ere, joan telebista saioetarako gonbidapenak, joan entrebistak, desfiletarako deiak, joan fama, ezpainetako karmina... eta etorri penak, etorri damuak, negargura, bakardadea... eta atzetik zimur, haragi zimel eta ostantzekoak. Bai, adinak bultza egin dio irratiko gurpiltxoari, apur bat aurrera, justu eguneko albiste berrienak kontatzen dituzten katean gelditu arte. Lehen airean pasatu ohi zuena. Gaur interesatzen baitzaio munduan gertatzen dena, bere bizitza hutsa ahazten laguntzen baitio

besteen desgraziak aditzeak. Gaizto egiten al du horrek? Hobeto sentitzen dela baino ez daki.

Telebistan kuxkuxeroen programak bakarrik ikusten ditu. Zazpisukalde xamarra ote den ere pentsatzen hasia da. Baina gustatzen zaizkio. Zarata, burrundara, diskusio eta haserreak... etxeko isiltasuna apurtzeko, egongelako lau pareten zuritasun itsugarria leuntzeko. Ez dauka adornu bat eta bera ere. Ez koadrorik paretetan, ez bidaietako souvenirrik apaletan. Denek iraganera lotzen dutelako, eta askatu guran eta ezinean diharduelako aspaldian. Erosketak egitera jaisten da egunero-egunero. Eta arratsaldean hiri handiko kaleetan galtzen da, noraezean, ezagunak baina arrotzak, hotzak zaizkion kaleetan barna. Hotzak bai. Ez Moskuko tenperatura baxuek eragindako hoztasunaren ondorioz. Beste hotz hori ere bai. Bere gazte denboretan, lurrera begiratzeko astirik ez zeukan garai hartan existitzen zenik ere ez zekien galtzadarri sare amaigabeari beha egiten ditu orain kilometroak eta kilometroak, bista lurretik altxatu gabe, txanpon bila ariko bailitzan. Baina ez da txanpon bila ari. Behinola, nonbait galdutako zerbaiten bila ari da. Berak ere ez daki zer aurkitu nahi duen. Harri grisek ez diote keinurik egiten, apenas adierazten diote konplizitaterik. Hotza baino ez dute emititzen. Ortutsik joango balitz bezala sartzen zaio hotza hankazpitik gora. Hotzikara gorputz guztira zabaldua. Etxera itzultzeko ordua.

Baina etxera bidean, juxtu bere etxea baino kale bi beherago, izkina egiten duen gozotegiaren erakusleihotik igarotzen da. Zer dagoen ikusteko besterik ez. Hala esaten dio bere buruari, hark oinei gozotegira bidea egiteko agindu diezaien. Eskuak kristalean pausatu eta adi begiratzen dio pasteltxo

bakoitzari. Ez, ez zaio komeni. Badaki bere buruarekin haserretuko dela, komeriak izango dituela berriz ispiluaren aurrean. Atea zabaldu eta betiko bezero fidela sartu denaren berri ematen du zintzilikari baten dilindak. Ezin ditu inpultso horiek kontrolatu. Erakusleihoan esku markak eta mostradorean gozoki baten hutsunea lagata aldentzen da kale izkina madarikatu hartatik. Haserretu da bere buruarekin osterara ere.

Ez du etxera itzuli nahi izaten. Zer egingo du, ba, betiko zulo hartan? Ez dauka inor zain. Horregatik, atari aurreko bankuan esertzen da apur batean. Egonean. Bizilagunei buruarekin agur egin eta ezagun bat edo beste eskuaz agurtu. Hori da kanpoko munduarekin daukan harremana, mundu gizatiarrarekin daukan kontaktu bakarra. Tira, hori eta arratsaldero bisitatzen duen gozotegiko saltzailea. Ilunkera aldera arte ez da jaikitzen egurrezko banku luzetik. Beti ordu berean, beti leku beretik, bikote gazte bat pasatzen da eskutik ondo oratuta, lelo irribarre bana ezpainetan. Orduan, damutu egiten da. Damutu hain ergela eta handiustea izan izanaz. Damutu kalean azken aldiz maita zezala eskatu zion gizonari irribarre batekin erantzun ez izanaz. Hain litzateke bestelakoa dena... Nostalgia lako sentimendu bat gainezka igotzen da etxera, malenkoniatsu, maitale ezkutuak zituen garaiak gogoratuz, kuleroei sexu usaia zerien uneekin akordatuz. Eskegitako arrokekin egindako collage koloretsuak buruan bueltaka.

Gaztaroa atzean laga behar duela esaten dio bere buruari. Pasatu zela, eta momentuan ondo pasatu gainera. Ez dio balio. Eta tentazioan erortzen da berriz ere. Logelako armairura joan, azpiko partean gorde ohi duen kaxa zabaldu eta orriak erabat horituta dauzkan aldizkari zaharretako bat atera du

magalera eta iraganean murgildu da. Hantxe aurkitu du bere burua, espero bezala, soineko zuri motz eta estu bat jantzita, argazkilariari keinu eta muxu bat eskainiz. Dotore. Elegante. Eder, polit eta gazte. Zenbat begi parek begiratuko ote zioten, zenbat pertsonak jakingo ote zuen bere postre faborittoa souffle-a zela eta bere praketako taila 32a eta asteko egunik gustukoena zapatua. Zenbatek jakingo ote zuten bere zapaten armairuan zeuzkan takoirik baxuenak 8 zentimetro zeuzkala eta tripa barrenean uso bat zeukala tatuaturik. Orain, ordea, nork begiratzen dio? Nork daki bere postre faborittoa apenas dastatzen duela gehiago gizentzeko beldurragatik edota bere praketako taila 46a dela? Nork daki asteko egunik zoriontsuena beretzat ez dela existitzen? Egun guztiak direla beretzat zein baino zein aspergarriagoak? Eta nork daki bizkarreko mina dela eta astero bi aldiz joaten dela masajistarenera? Bere armairuan dagoeneko takoiaren arrastorik ez dagoela? Nork daki, ba, zenbat saio egin dituen behin ederra izan zen baina egun amorfoa den uso hori tripa barrenetik desagerrarazteko, inolako zorterik gabe? Inork ez. Inortxori ere ez baitzaio interesatzen bere bizitza. Bera ere, aldizkariarekin batera kaxan preso dagoelako. Ahanzturan galdua. Bere tiraderaren barrenean nahaspilan gordetako milaka alferreko lentzeria prenda bezala.